

1930/2025 EBAZPENA, uztailaren 23koa, Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtu ESIko Kardiologiako (Kardiologia klinikoa) atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentearen maiatzaren 26koa 1181/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtu Kardiologiako (Kardiologia klinikoa) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko ekainaren 13ko EHAA 111 zk. eta 2025eko ekainaren 23ko BOE 150 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko uztailaren 14an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Bilbo-Basurtu ESIko Kardiologiako (Kardiologia klinikoa) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.


Bilbo, 2025eko uztailaren 23a

Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano



I. ERANSKINA

**KARDIOLOGIAKO (KARDIOLOGIA KLINIKOA) ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO
LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- D^a Maria Fe Arcocha Torres

Baztertuak:

- Inor ez.